

‘Irurac Bat’ Konferentzien hezkuntza- eta kultura- proiektuak (1839-1868)

Jurgi Kintana Goiriena
Historian lizentziatua eta UEUko kidea

XIX. mendean zehar Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioeta-ko ordezkariak Konferentzia izeneko batzarretan elkartzen ziren aldiari-aldian, hiru probintzien politikak koordinatzeko asmoz. Artikulu honetan, Konferentzia haien aktak aztertuz, hezkuntza eta kulturaren arloan aurkeztu eta garatu zituzten ekimen bateratuak analizatzen dira, 1839-1868 arteko epeari dagokionez. Hala ondoriozta daiteke Konferentziak aski eraginkorrak izan zirela hiru probintzien eskumenak, hala nola hezkuntzaren arlokoa, Espainiako gobernuaren saio unitaristen aurrean defendatzeko. Baina, aldiz, batzar haiek eraginkortasun urria izan zuten, hitz eta asmo onetatik harago, hiruren artean hezkuntza- eta kultura-ekimen bateratuak gauzatzeko orduan.

During the 19th century, the representatives of the institutions of Araba, Bizkaia and Gipuzkoa used to meet periodically in assemblies called Conferences to coordinate their politics. This article, analyzing the minutes of those Conferences, investigates the educational and cultural projects proposed and developed together by the three provinces since 1839 to 1868. In this way it is inferred that the Conferences were notably effective to defend the domains of action of those three provinces, such as the educational domains, in front of the unitarist efforts of the Spanish Government. But, on the other hand, those Conferences had little effectiveness, beyond good wishes and words, to put among three provinces common cultural and educational plans into practice.

1. Sarrera

1.1. Konferentziak

Topikoa da euskal herrialdeen nortasun historiko berezitua aipatzea: azken mendeotan, ez omen da euskal erakunde komunik egon, baizik Araba mailakoak, Nafarroa mailakoak, Bizkaia mailakoak, Lapurdi mailakoak, etab. Bakoitza bere foru, Diputazio, biltzar eta arau bereziekin, bakoitza bere aldetik. Onartu izan da, bai, egon zela herrialde maila gainditzen zuen euskal identitate ideologiko-kultural zabalago bat (hizkuntzari lotua, edo kantabrismo-tubalismo moduko mitoekin erlazionatua) baina ez probintziaz gaindiko euskal erakunde komunik. Topiko horrek, ordea, ahortzi egiten du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkari instituzionalak (aldika baita Nafarroakoak ere) Konferentzia izeneko bilkuretan elkartzen zirela politika bateratu bat adosteko. Joseba Agirreazkuenaga historialaria izan da bilkura horien garrantzia nabarmendu duena, eta Konferentzia horietako aktak agitaratu eta aztertu dituena (Agirreazkuenaga, 1995).

Konferentzien abiapuntu zuzena, aurrekariak zaharragoak badira ere, Euskal-erriaren Adiskideen Elkartearen koka daiteke. Xabier Maria Munibe gipuzkoar jauntxo ilustratuak sortu zuen kultur elkarte hau 1764. urtean, "Izurac Bat" lelopean. Elkar-teak ordura arte nagusi zen perspektiba probintziala gainditzea lortu zuen, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aristokrata eta agintariei (baita Nafarroako hainbati ere) sozializatzeko eta urtero elkarrekin biltzeko gune komun bat eskaini zien. Aisialdian elkarrekin biltzera ohitutakoan, ez zen jauzi handirik egin behar izan usadio hori erakundeen maila formalagora eramateko. Eta hola, 1775ean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-erakundeetako ordezkariak beren lehen Konferentzia egin zuten, hiru herrialdeen politika koordinatzeko asmoz. Konferentzia horiek aldika errepikatu ziren, 1793. urtetik aurrera periodikoak bihurtu arte. Hiru herrialdeek XIX. mendearen hasieran nafar erakundeetako ordezkariak ere luzatu zieten gonbita Konferentzietan parte hartzeko, baina horiek ez zuten nahi izan. Hala, bada, Konferentziak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeen koordinazio-organo gisa finkatu ziren XIX. mendean, *Conferencias bascongadas* edo *Conferencias Irurac Bat* izenpean. Konferentzia ez zen zehazki hiru probintziak gobernatzeko organo unitario bat, baizik eta hiru Diputazioen politika adosteko erakunde konfederal bat, nagusiki Madrilan aurrean batera jokatzeko biltzen zena. Batzarrak, batez beste, urtero egiten ziren (konparaziorako Bizkaiko Batzar Nagusien maiztasuna urriagoa zen, bi urterik behinekoa), eta Konferentziek ez zuten kokagune finko bat (ezta egoitza propiorik), baizik txandaka egiten ziren hiru probintzietan: Bergaran, Gasteizen, Bilbon, Tolosan... baita aldika Madrilan ere (euskal ordezkariak Espainiako Gobernuarekin bildu aurretik).¹

Konferentzien aldirik oparoena gerra karlista bien artean (1839-1872) bizi izan zen, Foralitate Berria izeneko fenomenoarekin bat eginez. 1839ko Foru-Legeak Hegoaldeko euskal erakundeak berretsi zituen baina Espainiako Konstituzioaren barruan. Konstituziopeko foruen estatus anbiguo hori indarrean zegoen garaian administrazio-arlo guztiz berriak sortu eta garatu ziren espainiar estatuan (hezkuntza, estatistika, obra publikoak, polizia...). Bada, administrazioaren atal

1. Konferentzien nondikoaz ikus Agirreazkuenagak (1995) haien akten edizioan egiten duen sarrerazko ikerketa.

berri horiek euskal probintzietan aplikatu behar ziren bakoitzean, foru-erakundeek arlo horien kudeaketa beren gain hartzeko ahalegin guztiak egin zituzten, eta gehienetan baita lortu ere. Arrakasta horretan berebiziko garrantzia izan zuten Konferentziek, hiru probintzietan elkarrekin koordinatzea eta Madrilan aurrean batera aritzea ahalbidetu baitzieten, bakoitzak zuen indarra areagotuz. Modu horretara antzinako erregimenean foru-erakundeek zituzten eskumenei arlo berriak erantsi zitzaizkien, eta euskal probintziak espainiar estatu baitako “barne-estatu” gisa aritu ziren, nahiz estatus berezi hori legez ez egon osotara finkaturik. 1839-1872 artean jazotako foru-erakundeen garapen politiko-administratibo horri deitzen zaio Foralitate Berria edo Foralitate Liberala².

Bigarren gerra karlista amaitu ostean (1876) Espainiako gobernuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foruak abolitu zituen, autogobernu-esperientzia zabal bati akabera emanez. Hala ere, Kontzertu Ekonomikoen babespean autonomia-mota berri bat abiatu zen, ekonomiko-administratiboa oraingoan. Erregimen berri horren baitan ere, hiru probintzien artean Konferentziak egiten segitu zen, eta izatez epealdi hartan (1876-1936) Nafarroako ordezkariak maiz bildu ziren haietara. Alta, Konferentziek Espainiako Gerra Zibila hasi arte segitu arren, beren garrantzia murriztuz joan zen, eta ez zuten XIX. mendearen erdialdean besteko protagonismorik izan euskal politikaren koordinazioan.

1.2. Auziaren egoera

Artikulu honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak, Konferentzietan bildurik, aztertu eta burutu zituzten hezkuntza- eta kultura-ekimen bateratuak ikertuko ditugu. Landuko dugun epea 1839ko foru-legetik 1868ko espainiar iraultzara doa, hots, Isabel II.aren aginte garaia barne hartzen du. Izan ere, hura izan zen Foralitate Berria gehien garatu zen aldia, eta orduan izan zen hiru probintzien arteko elkarlana inoizko handiena. Beraz, uste izatekoa da hiru probintzien arteko hezkuntza- eta kultura-proiektu komunak epe hartan garatuko zirela inoiz baino gehiago. Hola, bada, artikulu hau elkarlan haren fruituak norainokoak izan ziren ikusteko baliagarria izango den ustean idatzi dugu.

Orain arte auzi konkretu honen inguruan Joseba Agirreazkuenagak gaia pausatzeko aurreratu dituen oharrek dauzkagu:

Las actas [Konferentzietakoak] de los años de 1860 contemplan un creciente interés por la defensa del euskera cuando se debatía la organización de una nueva administración de servicios. Así, el argumento aparecerá frente a la Ley de Instrucción Pública de Moyano, porque la realidad bilingüe del país debería ser reconocida de modo que los maestros fueran bilingües. Una preocupación similar se manifestó en el caso de los profesionales de la medicina en el ejercicio de la profesión de cirujanos. Desde la Administración foral se defendió que los nuevos servicios fueran ejercidos por personas capacitadas para desarrollarlos en ambas lenguas. En el plano cultural y científico se proyectó la celebración de concursos de narraciones que relatasen historias vascas e incluso se propugnó la rehabilitación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. (Agirreazkuenaga, 1999:140).

2. Foralitate Liberal edo Foralitate Berri deitu denaz cf. Agirreazkuenaga (1987a), (1987b), (1993), (1999), Clavero (1985), (1986), (1990), Fernández (1985), Fernández-Albaladejo (1982), Martínez-Rueda (1995), Mina (1981), Monreal (1986), Portillo (1987), Portillo & Ortiz de Orruño (1990) edota Rubio (1996), (1997).

Pasarte horretan aipatzen diren kontuek Konferentzietan ukitu ziren kultura- eta hezkuntza-gaietara gerturatzeko gaituzte, baina, jakina, hor ez dago auziaren inguruko ikerketa osorik, lehen hurbilpen sintetiko bat baino. Beraz gure artikuluan Konferentzietako proiektuak sistematikoki arakatu eta deskribatuko ditugu. Halaber Agirreazkuenagaren sintesian iradokitzen den ondorioa, hots, Konferentziak euskal kulturaren sustapenean aski aktibo aritu zirela, noraino izan zen hala zehazten saiatuko gara.

Gurea baino arlo zabalagoa hartzen du Coro Rubio-k berriki (2003. urtean) argitaratu duen *La identidad vasca en el siglo XIX* ikerlanak. Liburu horretan hemeretzigarren mendean eraiki zen euskal nortasuna aztertzen da, tartean kultura- eta hezkuntza-gaiak ukituz, hots, guk darabiltzagun berberak. Baina Rubio Konferentzietara mugatu beharrean garaiko agente sozial gehiagotara hedatzen da (politikoak, idazleak, Eliza, etab.). Beraz hein batez gure artikuluko gaiak jasotzen ditu, baina modu zabalagoan. Hala ere, ez die Konferentzietara arreta berezirik eskaintzen. Aitzitik bestelako agente sozialen ekintzaren baitan (bereziki Diputazioek bultzaturiko ekimenen barruan) aipatzen ditu, eta ez modu sistematikoan³. Hala, bada, artikuluko honen ikerketa oraindik ere jorratu gabe dagoelakoan heltzen diogu gaiari.

Galde liteke ea noraino duen zentzurik Konferentzien jardura ikertzeak tesuinguru zabalagoa landu gabe (Diputazio bakoitzaren ekimenak, etab.). Kontziente gara Konferentzia ez zela bere baitan bildutako erakunde bat, baizik Diputazioetatik sortzen zen bilkura bat, osoki aldundi bakoitzaren dinamika berezietan lotua. Hala ere, ikerketa hau Konferentzietan aurkezturiko proiektuetara mugatzeak lagunduko digu ikusten erakunde horrek berenez zer ematen zuen eta zer ez. Horrek ez du esan nahi gure artikuluan Konferentzietan landutako gaiak modu isolatuan ikusiko ditugunik, inguruan gertatzen zenari ezikusia eginez. Aitzitik Konferentzietan landutako gaien tesuingurua azaltzen saiatuko gara, baita seinatzen ere non aurki daitekeen auzi horiei buruzko informazio bibliografiko osagarria, baina argi edukiz gure ikerketa ezin heda daitekeela arlo guztietara.

Artikulu honetan segitzen den egiturari dagokionez, ikerketa bi parte nagusitan banaturik dago. Lehenean hezkuntza aztertzen da, bai eskumenen arloan gertatu ziren tentsioei dagokienez, bai irakaskuntza ertain eta goi-mailakoetan hiru

3. Adibide gisa aipa liteke Rubio-k ez diela segimendurik egiten Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen berpizteko egin ziren proposamenei, ezta literatur lehiaketa komun bat sortzeko asmoei ere, proiektu guztiok Konferentzietan aipatu baziren ere. Eta kuriosoa da zeren argitaratutako Konferentzien aktak ezagutu egiten ditu (Agirrezakuenagaren lana pasadan aipatzen du Rubio-k in 2003:39, 54), baina iturriak zuzenean kontsultatu beharrez (artxibo probintzietara eta jotzen du Konferentzien eta bestelako erakundeen aktak aipatzeko), Rubio-k uko egin dio jada argitaratuta zegoen bilduma horri, eta, ondorioz, jada bilduta zeuden akta batzuk eskapatu zaizkio, agian aztertu dituen artxiboetan hutsuneak zeudelako. Izatearabaino Rubio-ren lanak alde txarrik badu (egileak euskara ez jakitearen ondorioz bere lanean azaltzen diren gabeziek gain), nabarmendu beharrekoa da artxiboko iturriak gordingordinean aztertzeko duen joera, bestelako ikertzaileek iturri eta gai berberen gainean orain arte idatzi dutena maiz alde batera utziz. Ondorioa XIX. mendeko euskal kulturaz, hezkuntzaz edota politikaz jada esanda dauden hainbat gauza berresatea da, ekarpen berririk egin gabe, eta lehengo ikerketek zuzenketak edo nabardurak egiteko aukera galduz. Horrek, jakina, ez dio kentzen Rubio-ren lanari bestelako bertuterik, dokumentazio oso zabala arakatu baitu (hainbat gaitan lehenago aztertu gabea), baina esan bezala, hutsuneekin *status questionis*-en arloan. Nolanahi ere, aztertzen duen gaiari dagokionez, erreferentziarako lana da Rubio-rena, eta datozen ikertzaileentzat abiapuntu ezinbestekoa.

probintziek aurkezturiko proposamenei dagokienez. Bigarren partean gainerako kultur proiektuak ikusiko ditugu: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen berpizteko saioak, euskal argitalpenak bultzatzeko asmoak, kultur txapelketen proiektuak, etab. Ondoren Konferentziek euskararekiko agertu zuten jarrera aztertuko da. Amaitzeko ondorio-laburpena dakargu.

Lan hau mamitzeko Agirreazkuenagak (1995) argitaraturiko Konferentzien akta-bilketa baliatu dugu. Bilketa horretan akta bakoitzari identifikazio-zenbaki konbentzional bat esleitzen zaio, eta geuk ere erreferentzia horien bidez (akta-zenbakiak parentesi artean zehaztuz) aipatuko ditugu testuak (baita batzarra egin zen herriaren izena eta data ere, hala komeni denean).

2. Hezkuntza

2.1. Hezkuntza-eskumenen inguruko borrokak

Antzinako erregimenean, foru-probintzietan, hezkuntzaz, batez ere oinarrizko hezkuntzaz, udalerrriak arduratzen ziren: beraiek aukeratzen zuten irakaslea eta beraiek ordaintzen zioten. Lehen Gerra Karlista amaiturik, eta 1839-10-25eko Foru Legearen ondoren, erakunde tradizionalak balioztaturik geratu ziren, printzipioz behintzat. Baina estatu liberal espainiarra eraiki ahala eta bere eragin-esparrua handitu ahala arazoak agertuz joan ziren.

Hola, 1855eko desamortizazio zibil eta eklesiastikoaren legeak, zeharka, hezkuntza-eskumen tradizionaleri eragin zien. Hiru probintzien Konferentziek arrazoi askorengatik kritikatu zuten lege hori (ikus 126-131 aktak). Arrazoietakoa bat hezkuntzaren arloan zekarren kaltea zen. Izan ere, desamortizazioak, besteak beste hezkuntza, benefizentzia eta Elizari eusteko erabiltzen ziren ondasun komunak salgai bihurtzen zituen. Desjabetze behartu horrek euskarri ekonomikorik gabe utziko zituen, tradizionalki foru-lurraldeei zegozkien eskumenok (hezkuntza, benefizentzia eta eliza-sostengua), ondorioz eskumen foral horien existentzia bera ere arriskuan utziz. Horregatik tratatu eta salatu zen auzi hau 1856ko Bilboko Konferentzian (132). Bi urte geroago, Madrilgo Gobernuak desamortizazioak suspertzean, salaketa bera errepikatu beharra izan zuten hiru probintziek (138: Tolosa, 1859-1-12).

Estatu liberalaren eraikuntzak eragin zuzenagorik ere izan zuen. 1857an Espainiako aurreneko hezkuntza-legea onartu zen, Moyano Legea izenez ezaguna. Handik bi hilabete eskasera Gasteizen egindako Konferentzian (133, 1857-11-6), hiru probintziek erreginari bidaliko zitoten protesta-gutuna adostu zuten, hezkuntza beren eskumena zela argudiatuz. Kexuak ez ziren hor amaitu, eta urtebetera, hezkuntza, eta bereziki lehen hezkuntza, Diputazio eta udalei zegokiela berretsi zuten Konferentzia berri batean (139: Tolosa, 1859-1-13). Kontua protesta soilean geratu ez zedin, hurrengo Konferentziak Madrilera eramanean zuten auzia (141.1, 1859-3-12).

Madriren, hiru probintziek Moyano legea beren lurraldeei zegozkienean aldake-tekin aplikatzeko proposamenak egin zituzten. Jatorrizko testuan, Moyano legearen arabera, "Junta Provincial de Instrucción Pública" bana sortu behar zen Espainiako probintzia bakoitzean, bertako eskolak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko. Juntak probintzia horietako gobernadore zibilek zuzenduko zituzten, eta Juntako gainerako

kideak ere gobernadoreek proposatu eta Espainiako Gobernuak izendatuko zituen. Beraz hezkuntzaren kudeaketa osoki geratuko zen Espainiako Gobernuaren kontrolpean. Madrilgo Konferentzian, bada, hiru probintziek Moyano legearen artikulua batzuei zuzenketak egin zizkieten, batez ere Juntako kideen izendapena Diputazio foralen eskuetan jarriz, eta Madrilen kontrola nabarmen mugatuz. Halaber eskolentara bidali beharreko irakasleen zerrendak Diputazio foralek osatuko zituzten, haiei ordaindu beharreko diru-kopurua proposatuko zuten eta udalerrien iritzia entzun ostean baita kopuru hori ebatzi ere. Eskola-barrutien berrantolaketa ere Juntek gauzatu zuten udalekin koordinazioan. Eta azkenik hiru probintziek irakasle-eskola bateratua edo bana sortzeko aukera izango zuten, zuzenketa hauen arabera. Hiru hilabete geroago egindako Konferentzian, zuzenketok oraindik onartzeko zeudela esaten zaigu (143: Bilbo, 1859-6-21). Tartean euskal ordezkariak eskura zituzten presiobide guztiez baliatu ziren Espainiako Gobernu mugiarazteko. Azkenean, 1859ko uztailaren 4ko Erret Aginduak zuzenketa horietako gehienak onartu zituen, Moyano legea hiru probintzietan modu berezian aplikatzea ahalbidetuz foru-Diputazioen mesedetan⁴.

Hola, helburu nagusiak lortuta, nahiz ez guztiak, tentsioa baretu egin zen zenbait urtez. 1868an, ordea, auziak susperraldi berri bat izan zuen. Lehen abisua 1868ko otsailaren 7an Bergaran egindako Konferentzian gertatu zen, hiru probintziek honakoa eskatzean: «Se dirija a la Corona un respetuoso recurso solicitando la modificación de la Ley [de Instrucción] en lo que no convenga a este país, y no esté en consonancia con sus costumbres, con sus instituciones y con su administración». Baina polemika larriena urte horren erdialdean onarturiko lehen hezkuntzaren lege berriak (Severo Catalina legeak) ekarri zuen. Bergaran egindako beste Konferentzia batean (170, 1868-6-22) gai nagusia lege horren ingurukoa izan zen, hiru probintzien izaera berezia zela-eta ezin onartzukoa baitzen zuzenketarik gabe. Hilabete bi geroago, iraultza demokratikoaren atarian, hiru probintziek hezkuntza-legearen zenbait artikulua suspentsioan utzi eta beren asmoa zilegitu nahi izan zuten, horretarako Sustapen ministroa Euskal Herrira bisitan etortzekoa zela aprobetxatuz (171: Bergara, 1868-8-7). Iraileko altxamenduak eta ondorengo erregimen aldaketak, ordea, (1868ko espainiar iraultza demokratikoak) auzi hau bazter utzi zuten.

Zelangura ere, hezkuntzaren arloan gertaturiko eskumen-borroka hau interesgarria da. Izan ere, Espainiako lege orokorrek hiru probintzietara nola egokitu behar zuten erakusten digu modu paradigmaticoan.

2.2. Erdi-mailako hezkuntza

Aurreko puntuan ikusi dugu hiru probintziek hezkuntza-eskumenaren jabetzaren alde sarrri egin zutela. Baina nola gauzatu zen praktikan hezkuntza-arloko foru-lurraldeen eskumen hori? Lehen mailako hezkuntza udalerrri mailan gauzatzen zenez, ez zen maila horretan hiru probintzien artean elkarlanean aritu beharrik gertatu. Aldiz, erdi-mailako hezkuntza (institutua, lanbide-eskola...) eta goi-mailako hezkuntza (unibertsitatea, seminarioa, etab.) gastu handiagokoak izanik, aldika, hiru probintzien mailako hezkuntza-erakundeak sortzeko proposamenak egin ziren Konferentzietan.

4. Cf. 1859-07-04ko Erret Aginduaz cf. Dávila (1995:60), Zabaleta-Imaz (1998:110) edota Rubio (2003:352-353).

Gerra Karlista amaitu eta urte-pare batera, 1841eko urtarrilean, Bergaran egindako Konferentzian (79) bertako udalak Diputazioei jakinarazi zien Bergarako Mintegia berrezarri nahi zuela, iraganean emandako zerbitzu onak gogoraraziz. Halaber, Bizkaiko Diputazioak bere Batzar Nagusien erabakia jakinarazi zuen, “Sociedad e Instituto Vascongado” bat sortzeko, horretarako beste bi probintzien laguntza eskatuz. Arabak eta Gipuzkoak hitz onak izan zituzten, baina beraiek beren Batzar Nagusiei jakinarazi besterik ezin egin zezaketela agertu zuten.

Sei hilabete geroago hiri berean (82: Bergara, 1841-7-27) Gipuzkoako Diputazioak bere Batzar Nagusien erabakien berri eman eta laguntza eskatu zien beste bie Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak birsortu eta lehen eta bigarren mailako industria-eskolak eratzeko. Araba eta Bizkaia auzia kontsultatzeotan geratu ziren.

Sei urte geroago euskal institutu bateratuaren proposamena berragertu zen (105: Bergara, 1847-9-15): probintzia bakoitzeko institutuak ahul zeudenez, hiru-erentzat institutu bakarra sortzeko aukera azaldu zen Konferentzian. Hobeto orniturik egonik, «podría dar resultados ventajosos a la enseñanza y educación moral de la juventud». (424. or.). Institutu hori non kokatu eta gainerako auziak arreata handiagoaz ikertzeko hurrengorako utzi zituzten.

Baina ez bide ziren euskal institutu bateratuaren kontuan adostasunera heldu, zeren, hurrengo urtean bakoitza bere institutua garatzen aurkituko baitugu. Hala ere, ez zioten besteei laguntza eskatzeari uko egin, eta hola, Gipuzkoako Diputazioak Bergarako institutua sendotzeko zuen asmoa agertu zuen, zientzia-eta industria-ikasgai berriak emateko bertan (111: Tolosa, 1848-10-19). Beste bi probintziek ekimena txalotu arren, beren proiektu propioekin ari ziren, eta ez zuten dirurik inori emateko. Zehazki Bizkaiko Diputazioa bere institutuaren eraikina ordaintzen ari zen Bilbon.

Urte batzuk geroago (143: Bilbo, 1859-6-21) gipuzkoar herritar batek bere Diputazioaren bidez, emakumeentzako “casa correccional” bat sortzeko proposamena helarazi zuen Konferentziara (ez zen, beraz, zehazki hezkuntza-zentro bat, baina ustez heziketa bat eman zezakeen heinean aipatu dugu). Hiru Diputazioak proposamena euren Batzar Nagusiei esateko geratu ziren.

1863ko Konferentzian (155), Ramon Ortiz de Zarate arabar diputatuak, hiru probintzien eta are Nafarroaren artean garatu zitezkeen proiektuen artean nekazaritza-eskolak sortzeko aukera azaldu zuen. Urte batzuk geroago nekazaritza-eskolen proposamenak berragertu egin ziren, eta berriro ere goi-mailako hezkuntza-proiektu “vasco-navarro” desberdinekin nahastuta. Horregatik, nekazaritza-eskolen proiektu berri horiek unibertsitatearen auziarekin batera ikusiko ditugu. Nolanahi ere aipatu beharrekoa da Ortiz de Zarateren interesa nafarrak inplikatzeko ez zela esangura gabeko gertaera isolatu bat izan, arabar diputatu hau aktiboki saiatu baitzen 1860ko hamarkadan lau probintzien arteko proiektu bateratuak bultzatzen. Eta, izan ere, hamarkada hartan hasi zen entzuten “laurak bat” leloa, nahiz ez zuen “irurac bat”-en adinako arrakastarik lortu.⁵

5. “Irurac Bat” elkartasunetik “Laurak bat”-era igarotzeko 1860ko hamarkadan egin ziren saioez (batez ere nafar eta arabar politikoak tarteko izanik) oso azalpen zehatzak aurki daitezke in Martínez-Beloqui (1984) eta Nieva (1999: 25-45), baita halaber in Rubio (2003: 69-87), nahiz azken honek aurrekoen lana ezagutu eta baliatu gabe landu duen gaia.

2.3. Goi-mailako hezkuntza

Oñatiko Unibertsitatea 1841ean itxi zutenetik Euskal Herrian maila horretako hezkuntza-guneeen gabezia nabarmena geratu zen. Horregatik, baldintza politikoek ahalbidetu zutenean (1841-1844 artean liberal moderatuen eta exaltatuen arteko gatazka larriek eten egin baitzuten ohiko jarduera politikoa) Gipuzkoako Diputazioak Oñatiko Unibertsitatea berrezartzeko proposamena aurkeztu zuen Konferentzian (100: Tolosa, 1846-7-2). Gipuzkoak beste bi probintziek eskariarekin bat egitea nahi zuen, horrela Madrilen elkaturik aurkezteko. Arabak eta Bizkaiak unibertsitatearen beharra eta interesa aitortu zuten baina Oñatiz gain beste herri batzuek ere unibertsitatearen gune izan nahi zutenez, auzia hobeto aztertu behar zela esanik, hurrengorako utzi zuten kontua.

Oñatiko Unibertsitatearen oroimenak, ordea, bizirik zirauen, horregatik, handik urte batzuetara bertan nolabaiteko goi-hezkuntzako zentzoren bat sortzeko proposamen berriak egin ziren. Hala, 1862an, Bergaran egindako Konferentzian (152), Oñatiko Unibertsitatearen eraikinean seminario bat jartzeko aukera plazaratu zen. Printzipioz denak ados agertu ziren arren, proiektua hobeto aztertzeko utzi eta auzia hainbat urtetan luzatu zen. Nolanahi ere, seminario bat sortzeko asmo hura ez zen kasualitatez pausatu une hartan. Izan ere, 1862. urtean Gasteizko diozesi edo elizbarrutia sortu zen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintziak barne hartuz (ordura arte diozesi desberdinetan sakabanaturik zeudenak). Beraz, diozesi propioa izanik, bertako eliztarrei zegokien goi-hezkuntza lurralde berean jasotzeko beharraren haritik planteatu zen Oñatiko seminarioaren asmoa⁶.

Bilakaera seguruagoa izan zuen Gasteizen Zirujauen Elkargo bat sortzeko asmoak. Proposamena 1865eko Konferentzian egin zen (161). Bizkaiko Diputazioa, euskal herriak hornitzeko zegoen medikuen faltaz kezu zen, eta hiru probintzien artean Zirujauen Elkargo bateratua egin zitekeela iradoki zuen, goi-eskola hori Gasteizen kokatuz. Proposamen horrek arabar eta gipuzkoarren oniritzia lortu zuen eta laster Madrileran eraman zuten euskal komisionatuek. Bertan euskal komisionatu eta diputatuek egindako Konferentzian (m36: Madril, 1866-2-28) adierazi zutenez: «la petición sobre creación de enseñanza de cirujanos o ministrantes en Vitoria, ha pasado a informe del consejo de sanidad», horregatik «se ha dispuesto que cada uno de nosotros recomiende este asunto a los consejeros que conozca», horrela proiektuak definitiboki aurrera egin zezan. Hala ere, azken orduan, dudaren bat egon zen Gasteizko Zirujauen Elkargoa sortzeko: 1867ko otsailaren 22an Bergaran egindako Konferentzian (164) proiektua aurrera eramateko dirurik ote zegoen aztertzeko geratu ziren.

1867ko Konferentzia hartan bertan (164) unibertsitatearen gaia berragertu zen. Izan ere, aurreko urtean Nafarroako Diputazioak beste hiru probintziekin harremanak estutzeko zenbait proposamen egin zizkien. Proposamen horien artean, hiru probintzien arretarik handiena erakarri zuena eta, halaber, guri gehien interesatzen zaiguna, *Universidad Vasco-Navarra* sortzeko ideia da⁷. Proiektua printzipioz

6. Gasteizko diozesiaren sorreraz ikus Rubio (2003:395-411). Hala ere, bertan ez da aipatzen Oñatin seminarioa sortzeko proiektua.

7. Nafarrek 1866an bultzaturiko Hego Euskal Herrirako unibertsitate-proiektu bateratu honetaz ikus Martínez-Beloqui (1984), Nieva (1999: 27-32) eta Rubio (2003:363-365).

ontzat eman zuten Konferentzian, eta Nafarroako Diputazioari informazio gehiago eskatzekotan geratu ziren, egingarria ote zen aztertzeko.

Urte bereko Konferentzia berrietan (166: Bergara, 1867-10-5) auzia hola zekusaten:

(en) lo relativo a la creación de una Universidad para el país vasco-navarro, la conferencia teniendo en cuenta la conveniencia de la idea y lo que respecto de ella se había anteriormente tratado y estaba acordado por las respectivas Juntas generales, determinó continuar el estudio de este asunto bajo todos sus aspectos, especialmente bajo el económico, para poder en su día proponer al país una resolución que, compatible con sus intereses y recursos, llene los altos, patrióticos y dignos designios que conduzcan a la realización de tan importante proyecto.

Hilabete batzuk geroago Madrilgo Konferentzietara eramán zen proiektua (m45: Madril, 1868-1-29). Han esan zenagatik argi zegoen auzia interesatzen zitzaiela, eta Oñatiko Unibertsitatearekin loturan ikusten zutela. Izan ere, unibertsitatea edo beste nolabaiteko zentroa baina zerbait egin nahia bazegoen: «el establecimiento de una Escuela profesional de agricultura en Oñate, en el caso de no poder conseguirse una Universidad Vasco-Navarra o un Seminario Conciliar» (1679. or.).

Nolanahi ere, Hego Euskal Herriko unibertsitatearen proiektu handia, aurreko lerroetan ageri denez, unerik unera murriztuz zihoan eta haren lekuan gero eta gauza apalagoak proposatzen ziren: Oñatiko Unibertsitatea, edo seminario bat, edo nekazaritza-eskola bat. Ikusten denez auziari jada kutsu probintzianoa zerion. Gainera, gunea Oñatin geratzean, Gipuzkoaren interes bihurtu zen, eta beste probintziak elkarlanetik aldendu zituen. Hala, Madrilen hurrengo hilabeteen egingako Konferentzian (m47, 1868-02-17), Bizkaiko Diputazioaren Gorteko ordezkariak, honakoa adierazi zioten Gipuzkoari: «en el asunto del Seminario Conciliar de Oñate, de la Universidad o de la Escuela profesional de agricultura, Vizcaya no se comprometía a ningún gasto o apoyo pecuniario». Gipuzkoar ordezkariak laguntza moralarekin konformatzen zirela adierazi zuten, Madrilen aurrean eskaria egiteko.

Hilabete gutxitan, lau probintzientzako unibertsitatea edo are Oñatiko Unibertsitate mugatuagoa sortzeko asmoa desagertu egingo zen. Oñatiko seminarioa bera ahaztu egin zen. Soilik nekazaritza-eskolaz hitz egingo zen, eta hori ere ziurtasun handirik gabe: «Se acordó [...] que se averigüe el origen del expediente promovido sobre la ampliación de la Escuela profesional de agricultura de Oñate» (m50, 1868-4-2); «aunque se han reconocido los índices generales y varios negociados, no ha sido posible encontrar el origen y antecedentes relativos al proyecto de Escuela profesional de Oñate» (m51, 1868-5-10).

3. Bestelako kultur proiektuak

3.1. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen berpizteko saiok

Xabier Maria Munibek 1764. urtean sortutako elkartearen mende haren amaierako gerren artean desagertu zen. Hala ere, bere gomuta ez zen galdu. Hala, 1841eko Konferentzian (82: Bergara, 1841-7-27), Francisco Palacios Gipuzkoako Diputatu Nagusiak beste bi probintzietako ordezkariak Segurako Batzar Nagusietan

hartutako erabakia jakinarazi zien, zeinaren arabera Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak (*Sociedad Vascongada*) berrantolatu nahi zen (baita lehen eta bigarren mailako industria-eskolak jada aipatu dugunez). Gipuzkoarrek beste bi probintzietan proiektua gomendatu eta horiek euren Batzar Nagusiei jakinarazteko geratu ziren.

Ez dugu auzi honen inguruko berri gehiagorik aurkituko Konferentzien aktetan hemezortzi urte igaro arte. Orduan, 1859ko urtarrilaren 14an Tolosan egindako Konferentzian (141) Arabako Diputazioak kideak izan ziren “Sociedad Vascongada” berpizteak hiru probintzietan lekarkiekeen onura azaldu zutenak. Hiru Diputazioetako ordezkariak bat etorri ziren gaiaren interesa onartzerakoan eta «se acordó que las Diputaciones estudien el proyecto para que pueda tratarse de él en las primeras sesiones que vuelva a celebrar la conferencia o cuando más conveniente se juzgue».

Hurrengo okasio hori, osteraren eguna, dezentatzen zen. Bergaran 1863ko urrian (155), berriro arabarrak izan ziren “Sociedad Vascongada” berrezartzeko kome-nientziaz ohar egin zutenak. Ez hori bakarrik, hiru probintzietan eta are Nafarroaren arteko harremanak estutzeko asmoz, Ramon Ortiz de Zarate arabar diputatu nagusiak proposamen gehiago ere egin zituen: nekazaritza, abelazkuntza eta industriaren gaineko erakusketak antolatu zitezela lau probintzietan txandaka, lau probintzietako nekazaritza-eskolak sor zitezela, eta Hego Euskal Herriaren mapa bat egin zedila. Interes praktikoa zuten asmoak izateaz gain, proiektu hauen atzean euskal identitate komuna sendotzeko gogoia antzeman daiteke. Lau probintzietan biltzen zituen maparen asmoa, adibidez, nabarmentzekoa da, erreprezentazio topografiko komun batek, bandera batek edo armari batek bezala, funtzio sinbolikoa hartzen baitu⁸. Oroitzekoa da urte berean, Luis Luziano Bonaparte printzeak euskalkien eremua jasotzen zuen zazpi probintzietan mapa argitaratu zuela Londresen, gerora ospe handia lortuko zuena (nahiz une hartan oso ale gutxi zabaltzen ziren).

Bergarako Konferentziara itzuliz, bilkura hark goian aipatu ditugun proposamen guztiak onatzen eman zituen. Baina abian jarri ahal izateko, proiektu hobetu zehaztuak aurkeztekoan gelditu ziren; probintzia bakoitzak bereak egingo zituen, salbu “Sociedad Vascongada”-ri zegokiona, hori Gipuzkoak jorratuko baitzuen, sortu ere bertan egin baitzen elkarteak.

Urtebete iraganik, 1864ko irailaren 6ko Konferentzian (158: Bergara), Arabako Diputazioak, Ortiz de Zarateren ahotik, gogora ekarri zituen aurreko urteko proposamenak, hala nola nekazaritza, abelazkuntza eta industriako euskal produktuen erakusketak egitearena, eta “Sociedad Vascongada” berrezartzearena. Berriro ere hitz onak entzun ziren, baina argi geratu zen ekimen hura bultzatzeko ahaleginetan ari zen bakarria Arabako Diputazioa zela. Hain zuzen ere Ortiz de Zarateri enkar-gatu zioten (hau da, seguru asko berak aurkeztu zuen boluntario bere burua) «que para preparar los antecedentes necesarios al restablecimiento de tan importante institución se encargue el mismo Señor Diputado de Álava de averiguar donde

8. Ugartek (1995:273) dioen bezala «Los procesos de centralización y unificación de los Estados han contado con la difusión de versiones dibujadas del territorio propio, sensiblemente distinguidas de los colindantes, convirtiéndose así en verdaderos símbolos, en paridad con las banderas, los escudos, etc...». Euskal kartografiaren bilakaeraz xehetasun gehiago artikulua berean aurki daitezke.

paran los libros, papeles, monetario y colecciones científicas de la Sociedad mencionada, y recupere de tan preciosos objetos cuanto le sea posible».

Hurrengo urteetan ez dugu berriro Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen birsortzeko proposamenik aurkitzen Konferentzietan. Gaia beste foro batzuetan segitu zuen defenditzen Ortiz de Zarate arabarrak, adibidez *Semanario Católico Vasco-Navarro* aldizkariako artikuluetan, 1867. urtean⁹.

3.2. Argitalpenak, lehiaketak eta kultur subentzioak

Orain arte aipatutako ekimenez gain, Konferentzietan bestelako kultur ekimenak ere proposatu zituzten, guztiak ere hiru probintzien (edo lauren) nortasun berezia nabarmentzeko xedeari lotuak. Hala, 1850eko Konferentzian (116: Gasteiz, 1850-1-25), 1829. urtean Pedro Novia de Salcedo-k —Juan Antonio Llorente-ren *Noticias históricas* obraren kontra— idatzitako *Defensa histórica* liburu foruzalea inprimatzeko aukeraz jardun ziren. Bizkaiko Diputazioa izan zen Araba eta Gipuzkoari (diru)laguntza eskatu ziena hirurentzat interesgarria zen obra horren argitalpenean kolaboratu zezaten. Azken bi probintziek obraren garrantzia eta argitaratzeko zegoen interesa nabarmendu arren, lan hori lehenago berrikusi beharra zutela adierazi zuten, bereziki euren probintzietan zegoen atalean. Gainera jada urte batzuk iragan ziren Novia de Salcedo-k idatzi zuenetik, eta bazitekeen zertxobait zaharkitua eta zuzendu beharrean egotea. Hori izan zen behintzat Araba eta Gipuzkoako ordezkariak memento laguntza ez emateko agertu zuten arrazoi dotorea.

Nolanahi ere, Novia de Salcedo-ren lanaren haritik, euskal historia, erakunde eta ohiturak ezagutarazteko beharra agerian geratu zen batzar hartan. Hortik, honako proposamena irten zen:

Convencidos de que la causa foral ganaría inmensamente en crédito y popularidad el día en que aquellos antecedentes y costumbres fuesen bien conocidos por el resto de los españoles; y considerando que hoy más que nunca sería importante y provechosa la publicación de ellos [...] acordaron proponer a las respectivas Diputaciones de las mismas la concesión de un premio, equivalente al mérito del trabajo del autor o autores que mejor desempeñase los puntos siguiente:

1.º La historia de la última guerra civil en el país vasco-navarro, de manera que resalten debidamente la conducta, nobleza y valor de sus hijos en ambos campos contendientes.

2.º Una novela histórica, o de costumbres, de regulares proporciones, sobre el fondo de algún hecho o época gloriosa del país.

3.º Vidas de los más ilustres varones antiguos y modernos del solar vascongado de suerte que formen con el tiempo una especie de Plutarco, dedicado al estudio y que andando los tiempos pueda servir a la vez de ejemplo y estímulo a nuestra juventud.

9. Aldizkari horretan 1867an Ortiz de Zaratek egindako artikulua in Rubio (2003:76). Aipu horretatik kanpo ez dugu Rubio-ren liburuan Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen berpizteko saioei buruz erreferentzia gehiagorik aurkitu.

Badirudi, ordea, proposamen-sorta hori hutsean geratu zela. Izan ere, hurrengo Konferentziek auzi larri eta premiazkoagoak izan zituzten aztergaia (foru-konponketarako proposamenak, hain zuzen). Horrela literatur txapelketa gisako horren ideia ahazturik geratu zen, eta ondorengo urteetan ere ez zen berragertu. Alta, ideia bera aipagarria da kontuan izanik Diputazioen ardurapean kultur lehiaketa bat sortzea proposatzen zuela. Gogoratzekoa da hurrengo urtean, 1851n, Anton Abadia zuberotar jatorriko mezenas aberatsak euskal festak antolatu zituela Iparraldean, 1853tik literatur lehiaketak erantsi ziren haien egitarauan eta lore-joko gisa urtero antolatu ziren. Konferentzietako proposamena eta Abadiarena ez ziren osoki berdinak: lehena gehiago zen gaztelaniazko kultur sariketa bat, eta bigarrena aldiz, euskaraz izateaz gain, lotuago zegoen herriko festa-giroari eta ez zen hain eruditua. Baina kasu bietan euskal nortasuna indartzeko eta sozializatzeko kultur jarduerak proposatzen ziren. Esanguratsua da, halaber, Konferentzien asmoak segidarik izan ez zuela baieztatzea (Diputazioen babesa izanagatik), mezenas pribatu soil batek, aldiz, aurrera segitzea lortu zuen bitartean. Abadiaren lore-jokoek Hegoaldera heltzeko 1877 arte itxaron behar izan zuten, baina Konferentzietako proposamen honek erakusten digu gauzak bestela izan zitezkeela¹⁰.

Bitartean Novia de Salcedo-ren hiru tomoak, hau da, *Defensa histórica, Legislativa y Económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Álava y Guipúzcoa*, Bilbon Delmasen moldiztegian argitaratu ziren 1851 eta 1852 artean. Ezin baieztatu dezakegun arren, uste izatekoa da Bizkaiko Diputazioaren diru-laguntza soilaz.

Konferentzietan aipatzen den hurrengo argitalpen-proposamena hamazazpi urte geroago azaldu zen. Bergaran 1867ko otsailaren 22an egindako Konferentzian (164) hiru Diputazioak ados agertu ziren Amalio Marichalar (Montesako markesak) eta Cayetano Manrique-k idatzitako *Historia de la Legislación y recitaciones del derecho civil de España* obran euskal probintzietan buruz azaltzen ziren atalak oso jakingarriak zirela esatean. Eta zentzu horretan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari zegozkien atalak berrargitaratu beharra ikusi zuten «teniendo en cuenta la autoridad e importancia de la [obra] citada y la utilidad de popularizarla para que sean más perfectamente conocidos los derechos inconcusos del país y sus gloriosos precedentes». Hola, argitaratzekotan geratu ziren, lehenago probintzia bakoitzak berari zegokion atalean egoki irizitako zuzenketak eginez (baina horregatik lanari aitortza ofizialik egin gabe: besterik gabe dibulgazio-lana izango zen). Eta asmo hau hurrengo urtean burutu zuten, 1868an, izatez hiru probintzietan buruzko atalez gain, Nafarroakoa ere barne hartuz¹¹.

1867ko Konferentzia berean, hiru Diputazioek adostu zuten Aristides Artiñanok idatzitako Novia de Salcedo-ren *Biografía* liburuaren hainbat ale erostea, zehazki beren probintzietako udaletxe bakoitzeko bana. Halaber, Bizkaiko ordezkariak azaldu zuten, Aristides Artiñanok Diputazio bakoitzak iradokitzen zizkion antzinako eta garaiko euskal pertsonaien biografiak idazteko asmoa zeukan. Konferentziak Aristides Artiñanoren asmoa goretzi eta laguntzea erabaki zuen,

10. Abadiaren lore-jokoei buruz artikulua bilduma jakingarria in AA (1998).

11. Marichalar A. eta Manrique C. (1868): *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España. Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava*, Madril. Publikazio honetan Nafarroa nola inplikatzen zen ikusteko ohar batzuk aurki daitezke in Nieva (1999:27-28).

aterako zituen biografiak erosteko konpromisoa hartuz. Izan ere, Konferentziak biografia horiei buruz hauxe adierazi zuen: «Se contemplan útiles a conmemorar los hechos gloriosos de los vascos y estimular y mantener vivos el entusiasmo y la gratitud de los pueblos». Azken finean, Aristides Artiñanoren lanak, neurri batean, 1850eko Konferentzian aipatu zen txapelketa haren modalitate biografikoa gauzatu zuen¹².

1867ko Bergarako Konferentzia hura (164) asmotan aberatsa gertatu zen, zeren Bizkaiko ordezkariak (Alejandro Urretxa Diputatu Nagusia, Manuel Urrutia Probintziako aita besteak beste, oraingoan nahiko aktibo kultur gauzetan ikusten denez) beste proposamen bat mahairatu zuten. Oraingoan Monumentu Artistiko eta Historikoen Komisioak bere ikerketetarako eskaturiko diru-laguntza erregua jakinarazi zien Araba eta Gipuzkoari. Diputazio bakoitzak zer egin bakoitzak erabaki zezala adostu zen.

3.3. Euskararen inguruko proiektuak

Ezin esan daiteke euskara edo euskal literatura promozionatzeko egitasmo zehatzik planteatu zenik Konferentzietan. Euskara ez zen kultur balio gisa hartzen. Horrek ez du esan nahi euskararekiko interes falta zegoenik. Interesa egon bazegoen, baina interes praktikoa zen, euskaldun askok erdara ez jakiteari edo txarto jakiteari lotua. Izan ere, populazio horri zerbitzuak euskaraz eskaini behar zitzaizkion, ondo administratu nahi bazen behintzat. Eta horretan Diputazioek eta Konferentziek nolabaiteko arreta jarri zuten. Hortaz, egungo hitzekin “hizkuntz politika” dei dezakeguna egon bazegoen, ez hainbeste euskara kultur balio gisa estimatzen zelako, baizik ezinbestez kontuan hartzeko komunikazio-tresna zelako. Eta beraz, kontzienteki ez bazen ere, euskara hein batez bultzatu zuen politika aplikatu zen. Horregatik sartu dugu euskararen auzi hau kulturaren baitan. Ikus dezagun euskara lagundu zuen politika hori zertan gauzatu zen.

Jada aipatu dugu 1857an euskal Diputazioek Konferentzian bildurik (133) Moyano-ren hezkuntza-legea kritikatzeko gutuna idatzi ziotela erreginari. Bertan ematen ziren argudioen artean euskara jakitearen beharra azaldu zen:

Los profesores de la enseñanza primaria deben necesariamente en este país poseer el idioma vascongado, la ley [de Instrucción] es imposible, porque suprimida de la administración foral la preciosa atribución de nombrar los maestros, las escuelas se verán ocupadas por profesores extraños a la lengua y a las costumbres especiales de este país [...].

Arestian (2.1. epigrafean) ikusi dugunez, Diputazioek Moyano legea hiru probintzietan aldatetekin aplikatzea lortu zuten, bereziki irakasleen izendapenaren kontrola eskuratuz. Kontrol horren haritik ea euskara zekiten irakasleak bultzatu ote zituzten Diputazioek, ez dago behar adina ikertuta, baina badirudi hein batez baietz, nahiz ez osoki.¹³

12. Artiñanori buruz ikus Gracia (2002).

13. Irakasle euskaldunen auziaz garai hartan ikus Dávila (1995:180-204), eta, aurrekoaren lana ezagutu gabe auzi bera autonomoki (datu berriak ere eskainiz) landu duen Rubio (2003:371-386).

Urte bi geroago, Bergaran egindako Konferentzian (145, 1859), Marokoko gerraz zihardutela euskal tertzio berezituak sortu beharra azaldu zen, arrazoieta bat hizkuntza izanik:

Se procure por la diversidad del lenguaje como por los hábitos de estos naturales y demás circunstancias de este servicio tan especial y extraordinario en este país, conseguir del Gobierno de Su Majestad el que los jefes y oficiales sean naturales de la Provincia y se nombren a propuesta de sus respectivas Diputaciones.

Lortu ere egin zuten hiru probintziek bertoko semeek espainiar armadara joan beharrik ez izatea, horren lekuan euskal tertzioak eratuz Diputazioen kargura, espainiar soldadua ez bezalako uniforme propioekin, "Izurac Bat" jartzen zuen banderarekin, eta dirudienez euskara zekiten ofizialek gidaturik¹⁴.

Handik hiru urtera, Gasteizko elizbarruti sortu berriaz ari zirela, Konferentziak apezpikutzara bidalitako gutunean (152: Bergara, 1862-10-10), apaizak izendatzeko orduan foru-lurraldeen berezitasunak kontuan hartzeko eskatzen zuen, tartean berezitasun linguistikoak:

Al dirigir al Prelado la excitación que se indica se haga esta extensiva a que en el arreglo del personal se digne apreciar las circunstancias especiales del país, sus condiciones topográficas, sus usos y costumbres, a que en la colocación de curatos y servicios se tenga en cuenta la necesidad de que los Ministros del altar sean del solar vascongado y posean el idioma del país sin lo que su ministerio vendría a ser completamente esteril e infecundo.

Urte bereko hurrengo Konferentzian berretsi egin ziren helburuak (153: Gasteiz, 1862-10-28).

Jada ikusi dugunez, 1865eko Konferentzia batean Bizkaiko Diputazioak Gasteizen euskal Zirujauen Elkargoa sortzea proposatu zuen (161). Izan ere, ordura arteko zerbitzu medikuek zituzten arazoaren artean hizkuntzazkoak ere baziren:

"[...] los graves inconvenientes que están ocasionando a los pueblos de estas provincias las dificultades con que tropiezan para proporcionarse cirujanos [...] considerada por un lado la idea de las desiguales condiciones en que las poblaciones vascongadas se encuentran por su situación geográfica, organización, falta de recursos, costumbres, e idioma [...]".

Esplizituki esan ez arren, uste izatekoa da euskal Zirujauen Elkargo horri esker, behar bezalako zerbitzua, baita hizkuntzaren arloan ere, eskainiko zela hiru probintzietan.

4. Ondorioak

Konferentziak foru-lurraldeen eskumenak defendatzeko organo nabarmena izan ziren. Zentzu horretan, haien bidez hiru probintziek beren hezkuntza-eskumenak arrakastaz errebindikatu zituzten. Konferentziak Madrilen aurrean batera jokatzeko aski eraginkorrak gertatu baziren ere, ezin esan daiteke hainbeste barne-elkarlanari dagokionez: hiru probintzien mailako hezkuntza-zentroak sortzeko

14. Euskal tertzio edo *tercios vascongados* hauetaz ikus Rubio (2003:158-168).

saiakerak, dela institutuak, dela lanbide-eskolak, dela unibertsitateak, asmo soilean geratu ziren. Herrialde bakoitzaren interesek, eta ordaintzeko orduan zeuden desadostasunek, proiektu gehienak ezerezean utzi zituzten. Soilik proiektu bat, Gasteizko Zirujauen Elkargoarena, egon zen onartua izateko zorian.

Gainerako kultura-arloetan, jarduera ez zen oso emankorra gertatu. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte berpizteko proposamena aldika agertu zen Konferentzietan, baina beti herrialderen bateko pertsonalitate baten bultzadaz (hasieran gipuzkoarrak, geroago arabarrak). Horregatik, gainerako probintziek, hitz onak agertu arren, ez zuten ekimena egiazki sustatu eta, azkenean, aurrera egin ezinik geratu zen.

Hiru probintzien kultur nortasuna sendotzeko, eta euskal kontzientzia zein foruberezitasuna dibulgatzeko eta sozializatzeko egin ziren gainerako proposamenak ere (lore-joko gisako txapelketak sortzea, lau probintzietan erakusketak antolatzea, Hego Euskal Herriaren mapa egitea, euskaldun ospetsuen biografiak idaztea, euskal gaien inguruko obrak argitaratzea, etab.) ez ziren larregi izan, eta gauzatu zirenak are gutxiago. Ohar egitekoa da kultura-auzi horiek guztiak beti tratatzen zirela azkenik Konferentzietan. Auzi politikoez eta ekonomikoez (foruen babesa, obra publikoak, zergarik ez ordaintzea, etab.) lehentasun osoa zuten beti. Akaso foru-Diputazioek, eskumen handiak zituztenez, promozio sinbolikoa baino zeregin garrantzitsuagoak zituztela iritzi zioten, kultur jarduera inizatiba pribatuaren eskuetan utziz.

Euskarari dagokionez, ez zen kultur balio gisa bultzatzeko eta zabaltzeko asmorik egon. Baina komunikazio-tresna praktikoa gisa kontuan hartzen zen. Horrela, Konferentziek, euskaldunak inplikatzen zituen zerbitzu publikoez jardutean, euskaraz jakingo zuten bitartekarien beharra agertu zuten: irakaskuntzan, tertzioetan, Elizan zein medikuntzan. Hau dela eta, zeharka, euskararen promozioan lagundu zuten.

Laburbilduz, Konferentzietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako (eta batzuetan baita Nafarroarako ere) kultura- eta hezkuntza-proiektu komun interesgarriak plazaratu ziren arren, organo horrek oso eraginkortasun urria izan zuen berauek gauzatzeko orduan.

Bibliografia

- AA (1998): *Antoine d'Abbadie 1897-1997; Ezohiko kongresua, Hendaia-Sara, 1997*, Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, Bilbo-Donostia.
- Agirreazkuenaga, J. (1987a): *Bizkaiko errepidegintza*, Giltz liburuak, Bilbo
- Agirreazkuenaga, J. (1987b): *Vizcaya en el siglo XIX: las finanzas públicas de un Estado emergente*, UPV-EHU, Bilbo.
- Agirreazkuenaga, J. (1993): *Gerra eta Bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisialdian*, Gaiak, Donostia.
- , (arg.) (1995): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, II. bol., Arabako Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bilbo.

- , (1999): “Las oportunidades de construcción del Estado liberal español: La ‘España Foral’”, *Ayer*, **35**, 121-146.
- Castells, L. (1985): “El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa”, *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario oblatæ*, UPV-EHU, Gasteiz, 2. bol., 1271-1289.
- Clavero, B. (1985): *Fueros vascos. Historia en tiempos de Constitución*, Ariel, Barcelona.
- , (1986): “Fuero en tiempos de Constitución: una suerte de federalismo”, in AA, *Jornadas de Estudio sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*, Bilbo, 238-253.
- , (1990): “Entre Revolución y Tradición: Constitucionalismo y Fuerismo”, *Historia Contemporánea*, **4**, 39-60.
- Dávila, P. (1995): *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*, Ibaeta Pedagogia, EHU, Donostia.
- Fernández, T. R. (1985): *Los derechos históricos de los territorios forales. Bases constitucionales y estatutarias de la administración foral vasca*, Civitas – Centro de Estudios Constitucionales, Madrid.
- Fernández-Albaladejo, P. (1982): “Guipúzcoa, la recomposición de una sociedad” in J. C. Jimenez (koord.), *Estudios de Historia Contemporánea del País Vasco*, Haranburu, Donostia.
- Gracia, J. (2002): “Antes y después del nacionalismo. Arístides de Artiñano: una vida consagrada a través de su obra histórico-jurídico-política, a la “Santa causa foral” (1840-1911)”, *Notitia Vasconiae*, **1**, 361-409.
- Martínez-Beloqui, M. S. (1984): “Las relaciones entre la Diputación de Navarra y las Provincias Vascongadas en 1866”, AA *Noveno Congreso de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo, 463-480.
- Martínez-Rueda, F. (1995): *Los poderes locales en Vizcaya. Del Antiguo Régimen a la revolución liberal*, UPV-EHU, Bilbo.
- Mina, M. C. (1981): *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Alianza, Madrid.
- Monreal, G. (1986): “Entidad y problemas de la cuestión de los derechos históricos vascos” in AA, *Jornadas de Estudio sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*, Bilbo, 59-82.
- Nieva, J. L. (1999): *La idea euskara de Navarra, 1864-1902*, Euskara Kultur Elkargoa - Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- Ortiz de Zarate, R. (1859): *Compendio foral de la provincia de Alava*, Bilbo.
- Portillo, J. M. (1987): *Los poderes locales en la formación del régimen foral, Guipúzcoa (1812-1850)*, UPV-EHU, Bilbo.
- , eta Ortiz de Orruño, J. M. (1990): “La Foralidad y el Poder Provincial”, *Historia Contemporánea*, 107-121.
- Rubio, C. (1996): *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo XXI de España, Madrid.
- , (1997): *Fueros y Constitución: lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868*, UPV-EHU, Bilbo.
- , (2003): *La identidad vasca en el siglo XIX. Discursos y agentes sociales*, Biblioteca Nueva, Madrid.
- Ugarte (1995): “Cartografía histórica”, J. Agirreazkuenaga (zuz), *Gran Atlas histórico de Euskal Herria. Nosotros los vascos*, Lur, Donostia, 273-288.
- Zabaleta-Imaz, I. (1998): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, Doktorego tesiak saila, EHU, Bilbo.

